



Betizu Kluba

Bazkide egiteko

Zuk ere Klubeko kide izan nahi duzu?

Ba adi, oso erraza da. Eta abantailak... mundialak!

Prentsa kioskoetan betizuon postala erosi, bete eta postaz bidali.

Gainerako guztia, gure esku! Denbora gutxiren buruan, etxean jasoko duzu zure txartela!

Betizu Kluba, a ze kluba!



Programazioa

PROGRAMAZIOA: 2005/11/6, igandea



GOIZEZ:

10:00 - SHEHERAZADE PRINTZESA
10:35 - GODZILLA
11:00 - SHERLOCK HOLMES
11:25 - DORAEMON, KATU KOSMI KOA



ARRATSALDEZ:

16:15 - POKEMON
16:40 - SHIN CHAN

Betizu Materiala

Saltoki edo denda nagusietan aurki ditzakezu produktu hauek guztiak.

<p>1</p> 	<p>Izena: BT - 1.0 (2003) (CDa)</p> <p>Disko honetan 13 abesti zoragarri aurkituko dituzu.</p> <p>Prezioa: 9 €</p>
<p>2</p> 	<p>Izena: SHIN CHAN- (CDa)</p> <p>Hamaika kante osatzen dute CDa</p> <p>Prezioa: 11 €</p>
<p>3</p> 	<p>Izena: UNIBERTSOLARIAK: One, two, three, jolastu gurekin! (2001) (VHSa)</p> <p>Ingelesa ikasteko bideo dibertigarria.</p> <p>Prezioa: 14 €</p>
<p>4</p> 	<p>Izena: Nahi duzuna egizu (2001) (CDa eta kasetea)</p> <p>Betizuen abestien bilduma-II</p> <p>Prezioa: 15 €</p>

(EITBren Webgunetik moldatua)

IZENA:.....DATA:.....

BETIZU-Ariketak

Jarri X erantzun egokiaren parean.

1.- Aukeratu egia esaten duen esaldia:

- | | |
|--------------------------|--|
| <input type="checkbox"/> | Betizu klubeko bazkide izateko, telefonoz deitu behar da. |
| <input type="checkbox"/> | Betizu klubeko bazkide izateko, betizuon postala erosi, bete eta postaz bidali behar da. |
| <input type="checkbox"/> | Betizu klubeko bazkide izateko, egunkarira idatzi behar da. |

2.- Ondoren zer jasoko duzu etxean?

- | | |
|--------------------------|-------------------|
| <input type="checkbox"/> | Txartela. |
| <input type="checkbox"/> | DVDa. |
| <input type="checkbox"/> | Poster bat. |
| <input type="checkbox"/> | Shin Chan-en CDa. |

3.- Zein egunetako programazioa agertzen da testuan?

- | | |
|--------------------------|--|
| <input type="checkbox"/> | Programazioa 2005eko abenduaren 6koa da. |
| <input type="checkbox"/> | Programazioa 2005eko azaroaren 6koa da. |
| <input type="checkbox"/> | Programazioa 2005eko urriaren 6koa da. |
| <input type="checkbox"/> | Programazioa 2005eko abuztuaren 6koa da. |

4.- "SHIN CHAN" programa ikusi zenuen.

Goizeko hamabiak baino lehen hasi zen programa

Arratsaldeko hiru eta erdietan bukatu zen programa

Arratsaldeko lau eta erdiak pasa eta hasi zen programa

5.- Goizeko 10:00etan nire anaia ETBko programa bat ikusten egon zen. 35 minutu iraun zuen programak. Zein programa ikusi zuen nire anaia?

DORAEMON, KATU KOSMIKOA

POKEMON

SHEHERAZADE PRINTZESA

6.- "Nahi duzuna egizu" CDa erosten baduzu, zer aurkituko duzu?

Betizuen abestien bilduma II

Ingeleseko jolasak

Bideoklip bat

7.- Ingelesezko jolasak nahi dituzu. Zein aukeratuko duzu?

SHIN CHAN (CDa)

UNIBERTSOLARIAK (VHSa)

BT - 1.0 (2003) (CDa)

8.- 20 € eman dizkizute. Zer eros dezakezu?

"SHIN CHAN- (CDa)" eta "UNIBERTSOLARIAK bideoa"

"SHIN CHAN- (CDa)" eta "BT - 1.0 (2003) (CDa)"

"Nahi duzuna egizu (CDa eta kasetea)" eta "BT - 1.0 (2003) (CDa)"

9.- Lotu gezi baten bidez antonimoak–aurkakoak: —————>

jaso

asko

aspergarria

bidali

gutxi

zaila

erraza

dibertigarria

10.- Zure ustez, zer informazio eman nahi du testuak? Idatzi testuaren laburpena.

.....

.....

11.- "Betizu" materialen artean (CD, bideoa, DVD) erosiko zenuke baten bat?

Zein?.....

Zergatik?.....